



18 Diciembre, 2016



Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Protokoloa sinatu duten gizarte eragile gehienak, atzo goizean, Kursaal auditorioan.

Hizkuntza aniztasuna bermatzeko “tresna eraginkorra” plazaratu dute

Donostiako Protokoloa, hizkuntza komunitate gutxituen egoera hobetzeko 185 neurri dituen liburua, aurkeztu dute

✎ **Marta Esnaola**
✎ **Javi Colmenero**

DONOSTIA – Europan jada bada tresna berri bat hizkuntzen berdintasunaren alde egiteko, atzo aurkeztu baitzuten jendaurrean Donostiako Protokoloa, hizkuntza aniztasuna bermatzeko “tresna eraginkorra”. Guztira 185 neurri “konkretuz” osatutako lan hau Europako hainbat gizarte eragileen ekarpenekin egindako proiektua da, ibilbide luzea izan duena, eta jada 100dik gora sinatzaile dituena, Kontseiluak zuzendu badu ere. Atzo goizean Kursaallean egin zen ekitaldi “hunkigarri” batean, bizikidetzarako “beharrezkoa” den eleaniztasuna aldarrikatu zuten Paul Bilbao Kontseiluko idazkari nagusiak eta Xabi Paya Donostia 2016ko kultur programaren arduradunak, Protokoloaren sorreran lanean aritu diren talde antolatzailerako kideekin batera,

eta urte eta erdian zehar egindako lana azpimarratu zuten, “elkarlanean” eraiki den proiektua baita.

Duela 20 urte Bartzelonan sinatu zen Hizkuntza Eskubideen Deklarazio Unibertsalean oinarritu dira liburu hau egiteko garaian, eta horregatik, Aureli Argemi eta Maria do Pilar Garcia izan ziren lehenak hitza hartzen. Orduan biek parte hartu zuten Bartzelonako prozesuan eta gogora ekarri zuten deklarazio hura honen aurrekaria dela. Orain, eskubideei buruzko testua zena tresna bilakatu da, eragileen ahalduntze kolektiboaren erakusle dena. “Geure hizkuntzetan bizitzeko baldintza egokiak sortzeko gai izan behar dugu eta horretarako, protokoloa geureganatu behar dugu”, azpimarratu zuen Bilbao. Pertsona askok euren eguneroko bizitzako ekintzak –medikuarenera joan, telefono-faktura irakurri, bigarren hezkuntza egin...– ezin dituzte euren

hizkuntzan egin eta horrekin bukatzeko pauso zehatzak eskaini dituzte.

“Europan inoiz ez da egin hizkuntza eskubideak bermatzeko horren parte hartze handia izan duen proposamenik, baina hau egunero hazten ari da, elkartasun linguistikoa muturrera eraman dugu”, gaineratu zuen, eta Protokoloa “Europaren aldeko dokumentu” bezala definitu zuen. “Parametro eta balio berri batzuetan oinarrituko den Europa baterako bide-orria prestatu dugu hamarnaka hizkuntza komunitate gutxiagotutako gizarte eragileei esker”, hausnartu zuen, hunkiturik. Prozesuan elkar ezagutu dutela nabarmendu zuen, eta “elkartasun linguistikoki hori oso beharrezkoa” dela baieztatu zuen, “etorkizunerako oso sare baliotsua sortu baita”.

Bestalde, Payak eleaniztasunaren balioa nabarmendu zuen, “Europa eraikitzeko ezinbestekoa” baita bere

ustetan, bizikidetzarako bidea markatzen du eta. “Diagnostikoa jada bagenuen eta orain tratamendua jarri behar da”, gehitu zuen Payak, eta erakunde publikoei eta proiektuan lan egin dutenei eskerrak emateaz gain, bakoitzak ahal dituen neurriak bete ditzan eskaera egin zuen, aurrera egin ahal izateko. Adierazi zuenez, guztien artean idatzitako liburua da, eta prozesua da garrantzitsua, baina sinatzeak dakarren konprometua azpimarratu zuen. “Sinadura horrekin, nire izena eman dut hemen plantatzen diren neurriak, egin dezakedan horretan, aurrera eramango ditudala”, azaldu zuen, eta horretaz gain, neurri hauek zabaltzeko duen garrantzia nabarmendu zuen.

“Kaiara aurkeztu da jada, baina orain, hori praktikan jarri behar da –jarraitu zuen Bilbao-. Hurrengo pausoa zein den hizkuntza komunitate bakoitzak ikusi beharko du,

lehenetasuna non dagoen finkatuz eta indarra non jarriko den erabaki ondoren, lanari ekiteko”. Komunitate bakoitzak neurriak berera ekarri beharko ditu, horretarako kaiara erabiliz, eta bete beharreko neurrien alde borrokatuz; orain arte eragile asko mugitzea lortu da, eta lan horretan aurrera jarraitu behar da.

Hitza hartzen azkenekoa Joan Mari Torrealda izan zen eta proiektuan sinestearen eta ilusioz jardutearen garrantzia azpimarratu zituen, horrela egindako lanak “asko lortu dezake eta”. “Aurrerantzean talde-lana izango da nagusi, kolektiboki jokatu behar da”, adierazi zuen, bere ustetan, herri ekimenak ikaragarri egin dezake eta, kudaketa on batez lagunduta badago.

Musikaz eta dantzaz arindutako saioa bukatzeko, sinatzaileak taula gainera igo ziren, Donostiako Protokoloa jada errealitate bat dela ospatu zutelarik. ●